KANALOPATIEN AZTERKETA FAMILIARRA ETA GENETIKOA

Bihotzeko sistema elektrikoko zenbait gaixotasunek gizabanako gazteen arritmia gaiztoak agertzea ekar dezakete. Sistema elektrikoaren gaitzen artean Brugada sindromea, QT luzearen sindromea eta QT laburraren sindromea daude.

Bihotzeko gaixotasun elektriko horiek eragina izan dezakete taupada bakoitzaren ondorengo aktibazioan edo indarberritze elektrikoan. QT luzearen sindromea bihotzaren indarberritze elektrikoaren denboraren luzapen anormalari dagokio. QT laburraren sindromean alterazioa alderantzizkoa da, hau da, taupada bakoitzaren ondoren bihotzaren errekuperazio elektrikoa bizkortu egiten da. Brugada sindromean arazo bat dago (atzerapen bat) eskuineko bentrikuluan dagoen bihotzaren zati jakin baten aktibazio elektrikoan.

Hiru gaixotasun horiek kausa genetikoa dute. Potasioko eta sodioko bihotzeko kanalei eragiten dieten alterazioak daude. Kanalopatiak bat-bateko mutazioek eragin ditzakete (pertsona bati eragiten diote), edo gurasoek transmititu ditzakete modu hereditarioan.

Nola diagnostikatzen dira eta zer sintoma ditu?

Gaixotasun horiek elektrokardiograman antzematen dira, berez edo sendagaiak emateak eragindako alterazio bategatik. Isilik egon daitezke, eta pazienteak ez du sintomarik izaten gehienetan. Hala ere, eritasun horietakoren bat duten pazienteetako batzuek arritmia gaiztoak izan ditzakete, eta, ondorioz, konortea gal dezakete, baita bat-bateko heriotza ere. Batzuetan, gaitz horrek familia bereko hainbat gizabanakori eragiten die. Diagnostiko egokia beharrezkoa da arriskua behar bezala balioesteko eta prebentzio-tratamendu eraginkorra hasteko.

Zuri edo zure senitarteko bati sindrome horietako bat diagnostikatu badizute, berrikuspen bat egiteko aukera eskaintzen dizugu, zuretzat ez ezik, zure familiarentzat ere beharrezkoa dela uste baitugu. Azterketa honetan datza: historia klinikoa (sintoma eta aurrekari klinikoei buruzko galderak), miaketa fisikoa (auskultazioa, etab.), elektrokardiograma eta 24 orduko elektrokardiograma (Holter). Gainera, farmako batekin esfortzu- edo probokazio-proba bat egitea gomendatzen dizugu, elektrokardiograman ezkutuan dauden asaldurak agerian uzteko.

Baimena ematen baduzu, odol-lagin bat jasoko dugu, gaixotasun horri buruzko azterketa biokimikoak eta genetikoak egiteko. Bildutako datuak euskarri informatikoan gordeko dira, eta odol-lagin izoztu bat gordeko da, ondoren analisia egiteko.

945007304 telefonora deituta (AOU KK Kardiologiako idazkaritza), goizeko ordutegian lanegunetan, gure kontsultarako hitzordua emango dizugu (guk ebaluatutako senidearen izena eskatuko dizugu). Azterketa horiei buruzko zalantzarik baduzu, deitu telefono honetara eta izan dezakezun edozein arazo konpontzen saiatuko gara.